

## EREMU DIGITALEKO BILERA

|                         |                                                                                                                                                                                                                                              |
|-------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Lekua:</b>           | Martin Ugalde Parkea, Areto nagusia (Andoain)                                                                                                                                                                                                |
| <b>Data:</b>            | 2025-04-08                                                                                                                                                                                                                                   |
| <b>Ordua:</b>           | 9:30                                                                                                                                                                                                                                         |
| <b>Bertaraturikoak:</b> | Elhuyar (Jon Abril), UEU (Kepa Sarasola eta Aitor Bengoetxea), Puntu.eus (Josu Waliño), Pantailak euskaraz (Iñigo Arandia), Talaíos (Gorka Julio), CodeSyntax (Josu Azpillaga) Wikilarien elkarte (Kepa Sarasola), Kontseilua (Patxi Martin) |

### 1. ONGI ETORRIA. BILERAREN KOKAPENA

Euskalgintzatik eremu digitala lehentasunezko sektorea dela ikusi da, gaur egun garapen handia izaten ari da mundu mailan eta hizkuntza hegemonikoek gaitasun eta erraztasun handiak dituzten horretarako. Honengatik, euskara mundu digitalean jartzeko beharra ikusi da, eragileen arteko koordinazio bat bilatuz eta estrategia edo bide berdina adostuta.

Eremu digitalean ere hizkuntz politiketan proposamen bat beharrezko dela ikusi da, eremuz eremukoa (industria, hezkuntza...) izanen dena eta hiru eremu administratiboetarako pentsatua.

Hainbat eragile izan dira gonbidatuak lanketa honetan parte hartzera;

- Baiezkoa eman dutenak:  
Elhuyar, UEU, Pantailak euskaraz, Talaíos, Codesyntax, Wikilarien elkarte
- Gaur ezin izan dutenak etorri baina parte hartzeko prestutasuna erakutsi dutenak:  
Hitz, Iametz, Librezale
- Ez dute erantzun: Hekimen, , Game Erauntsia, Clariaheus

## **2. EUSKARAREN ESTRATEGIA DIGITALAREN LANKETARAKO PROPOSAMENAREN AURKEZPENA. HELBURUAK ETA EGITEKOAK.**

---

Lantaldearen egitekoa “Euskararen Estrategia Digital” batek izan beharko lukeen oinarria definitzea da, hizkuntzaren garapen osoa helburu.

Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko eremu digitalean euskararen garapena bermatzea izan beharko luke estrategiak jo puntuan.

Ariketa erronka-logika bati erantzunez egingo da (adibidez, euskararentzat 10 erronka nagusiak definituz).

Bi lan-lerro nagusi ikusten dira: erabilera-politikak eta garapen-politikak. Bietarako proposamenak landuko dira.

Horretarako, honako urrats hauek ematea proposatzen da (lauzpabost saiotan lantzekoa)

1. Eremua zehaztu: eragileak (identifikatu, eta bakoitzaren eremua kokatu), hartzaileak (administrazioa, eragile sozialak, enpresak, ikerketa-zentroak...), geografia-eremua (Euskal Herri osoa)...
2. Helburua zehaztu: Euskararen Estrategia Digital baten helburu nagusia eta helburu zehatzak definitu.
3. Beste hizkuntza batzuetan dagoena ezagutu (gutxiagotuak eta gurearen antzeko tamaina izan dezaketen hizkuntza batzuk aintzat hartuta: estoniera, islandiera, erromantxea...). Benchmarking ariketa bat.
4. Euskararen egungo egoera digitalaren AMIA egin: indarguneak, aukerak, ahuleziak eta mehatxuak
5. Erabilera-politikak proposatu (erronka- edo neurri-sorta)
6. Garapen-politikak proposatu (erronka- edo neurri-sorta)
7. Gobernantzarako proposamena egin
8. Lehentasunak ezarri
9. Komunikaziorako ekintzak proposatu (agian Kontseiluak egin beharreko lana eta hartu beharreko bidea)

Gaur lehendabiziko bi urratsak garatuko dira. Lanketa 4-5 bileretan garatzeko asmoa dago, ez da denbora lerro bat diseinatu eta beraz denen artean erabakiko da lanketan denboran izanen duen luzera; sobera estu ibili gabe, ezta sobera luzatu gabe ere.

### 3. LANERAKO EREMUA ZEHAZTU: ERAGILEEN IDENTIFIKAZIOA, HARTZAILEAK, LAN-EREMUA...

---

- Eragileen identifikazioa:
  - Softwaregintza + ikerketa: Elhuyar + Orai, Codesyntax, Teks (ekonomia soziala + tek. Librea), Librezale, Abaraska, Iametz, Vicomtech, Hitz zentroa
  - Eduki sortaileak: Tinko euskara elkarte, EWKE (Euskal Wikipediako Kultur Elkartea), Hekimen, Game Erauntsia, UZEI, EITB, Ibaia (eta antzeko beste ikus-entzunezko elkarte batzuk).
  - Hezkuntza + administrazioa: Ikastolen elkarte, UEU, Hezkuntzan Librezale. Administrazioak.
  - Bestelako eragileak: Langune, Kontseilua, Puntueus, Pantailak Euskaraz.
- Hartzaileak: **euskal gizartea**
  - Eremuka: administrazioa, hezkuntza komunitatea, industria, hedabideak, eduki sortaileak, software, ikus-entzunezkoak
  - Kontuan hartzekoa: pentsatu beharrekoa orain iristen ez garen pertsonak nola hurbilarazi eremu honetara. Kontuan hartu behar dira pertsona guzti hauek gure lanketa diseinatzerako momentuan (adb.: erdaldunak, euskaldun berriak, pertsona migratuak, eremu administratibo bakoitzeko jendartea...). Hau da, irisgarritasuna kontuan hartu behar da, orain iristen ez garenengana ailegatzeko ahalegina egin.

### 4. EUSKARAREN ESTRATEGIA DIGITALAREN HELBURUAK LANDU (NAGUSIA ETA ZEHARKAKOAK)

---

- Helburu nagusia: (\*)

Eremu digitalean euskaraz eroso bizitzeko, eta euskararen biziberritzeari bultzada emateko, politikak, tresnak, neurriak eta baliabideak definitzea, burujabetza teknologikoa oinarri.
- Zeharkako helburuak:
  - Ekosistema antolatu eta artikulatu
  - Gobernantza-politikak zehaztu
  - Sektore estrategikoak definitu
  - Transmisioa: Eduki sortaileak eta eduki hartzaileak sortu; ezagutu eta erabili.
  - Tresnak, zerbitzuak eta edukiak garatzeko politikak definitu.

---

(\*)Ateratako helburu nagusirako ideiak:

Euskararen erabilera eta garapena ziurtatuko duen estrategia publiko komunitario eta burujabe bat garatuko duen eredu propio bat sortu.

Digitalizazioa baliatu euskararen biziberritze prozesua azeleratzeko eta biratzeko.

Euskara eremu digital guztietan automatikoki, modu erraz eta natibo batean irisgarri egitea kalitate hoberenean.

Euskararen normalizazio prozesuan IKT teknologiaren erabilera sakonaz baliatzea.

Ingurune digitalean euskarak lehen mailako presentzia izatea tresna, eduki eta zerbitzuetan, eta hauen ezagutza eta erabilera sustatzea.

Eremu digitalean euskararen garapenerako eta euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko garatu beharreko politikak, tresnak, neurriak eta baliabideak zehaztea.

Hainbat ideia azpimarratu dira ariketa honetan. Alde batetik, baliabideen beharren inguruan hitz egin da: euskarazko itzulpenak dauden ekintzetan amankomuneko sinbolo baten beharra, modu digitalean euskaraz ikasteko tresna garatzea, jada dauden tresnak eta baliabideak eskuragarri egotea eta hauen inguruko informazioa irisgarri egotea... Oro har, eremuari baliabide nahikorik eskaintzen ez zaizkiola eta honek estrategia propio bat garatzea beharrezkoa duela mahai gaineratu da.

Beste aldetik, eremu digitala gaur egungo pertsonen bizitzen erdigunean dagoenaren ideia; euskara eremu digitalean egon behar dela esaten da maiz, baina ulertu behar da eremu hau estrategikoa dela euskararen normalizaziorako, eta biziberritze-estrategietan funtsezko ardatzetako bat izan behar duela (esaterako, gazteek ordu gehiago ematen dituzte eremu digitalean ikastetxean baino, eta beraz, bertan eragitea estrategikoagoa da askotan).

## 5. HURRENGO URRATSAK ETA LANEN BANAKETA

---

Hurrengo bilerarako beste hizkuntza komunitateetako estrategiak aztertuko dira. Honetarako, ezagutzen direnen zerrenda egin da eta horien estrategia hurrengo bilerarako aztertuko dir (parentesi artean nork helduko dion hizkuntzetako bakoitzari).

Hizkuntza gutxituak: katalana (Iñigo), galegoa (Jon), okzitaniera (Aitzol).

Nazio hizkuntzak: islandiera (Kepa), estoniera (Josu W.), txekiera (Jon), erromantxera (Manex). Aztertu Eskandinaviako hizkuntzaren bat komeni ote den (herrialde horietako hiztun gehienak ingeles elebidunak dira, eta kontsumo digital ia osoa ingelesez egiten dute), Zeelanda Berria (software produkzio handia izan dute, baina ez dakigu hizkuntzaren ikuspegitik zerbait egin duten; maoriarekin zerbait egin dutenaren susmoa).

## 6. NORBERAK LEKARKEENA

---

- Euskorpusaren inguruko aipamena egin da. Erantzun bateratu bat emateko beharra dagoela ikusi da eta Euskalgintzaren Kontseiluko Zuzendaritzara eramanen da hau kudeatzeko.

| EGITEKOAK                                                                    | ARDURADUNA     |
|------------------------------------------------------------------------------|----------------|
| Beste hizkuntza komunitateko<br>estrategiak aztertu eta informazioa<br>bildu | Eremuko kideak |
| <b>Hurrengo bilera: Maiatzak 8 - 9:30 – Martin Ugalde Kultur parkea</b>      |                |